

HABE

EBAZPENA, 2022ko irailaren 26koa, HABEren zuzendari nagusiarena, euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek arbel digitala eta hauei dagozkien euskarriak eskuratu ahal izateko aurkeztutako eskariak onartu eta eskatzaile bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa ezartzen duena, euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek arbel digitalak eta hauei dagozkien euskarriak eskuratu ahal izateko dirulaguntzak arautzen dituen HABEren zuzendari nagusiaren 2022ko uztailaren 12ko Ebazpenak ezarritakoaren arabera.

IKUSIRIK, deialdira aurkeztu diren hiru eskari pertsona fisikoei dagokiela, eta ez direla ebazpen honen helbururako eskariak

IKUSIRIK, deialdira aurkeztu eta eranskinean zerrendatzen diren beste eskatzaileak euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen titularrak direla eta onuradunek bete beharreko baldintzak betetzen dituztela

IKUSIRIK, euskaltegiek dirulaguntza gai izateko eskatutako ekipamendu teknologikoa deialdi honetarako xede diren arbel digitalak eta hauen euskarriak direla

KONTUAN HARTUTA, deialdiaren I Eranskinean adierazitako gehienekoa ezin dela gainditu eta diruz lagundu nahi den ekipamenduaren erosketa kostearen erdia laguntzen dela diruz.

EBAZTEN DUT

1.- Ebazpen honen helburu ez ziren eta deialdi honetan eskaria aurkeztu duten hiru pertsona fisikoei dirulaguntza ukatzea.

2.- Eranskinean zerrendatzen diren euskaltegi pribatu homologatu eta euskararen autoikaskuntza zentroeiei, arbel digitalak eta hauei dagozkien euskarriak eskuratu ahal izateko **113.204,45** euroko dirulaguntza onartzea, euskaltegi bakoitzari esleitutako kopurua eranskinean jasotzen delarik

Esleitutako dirulaguntza hau izango da euskaltegi bakoitzaren gehienezko kopurua.

3.- Emandako dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko zaio erakunde onuradunari, gastua behar bezala zuritu ondoren, eta ebazpenaren 10. oinarriak aurreikusitako irizpideen arabera, hala behar balitz, kitapen-ebazpen baten bitartez doitu da.

Ebazpen honen aurka, administrazio bidea agortzen ez denez, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaiokete Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango dute Ebazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Donostia, 2022ko irailaren 26an.



Iz.: Jokin Azkue Arrastoa
HABEren zuzendari nagusia

HABE
Helduen
Alfabetatze eta
Berreuskalduntzerako
Erakundea

HABE

ERANSKINA

EUSKALTEGI PRIVATU ETA EUSKARAREN AUTOIKASKUNTZARAKO ZENTRO HOMOLOGATUEK ARBEL DIGITALAK ETA HAUEI DAGOZKIEN EUSKARRIAK ESKURATU AHAL IZATEKO ESLEITUTAKO KOPURUAK

ERAKUNDE TITULARRA	IFK	DIRUZ LAGUNDUTAKO MATERIALA	LAGUNTZA
ARDATZ Kultur E.	G01052042	6 arbel digital, hormetarako 6 euskarri eta horien instalazioa	5.332,39
BILBO ZAHARRA Euskaltea Koop.E.	F48117774	14 arbel digital eta horien instalazioa	16.135,35
EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK Europar Koop. Elk.	F95583233	2 arbel digital, 2 mikrofono, 2 kamera, 2 PC konpakto, 2 ordenagilu eramangarri eta 2 euskarri gurpildun	5.207,44
EUSKARAZ Koop.E.	F95222816	20 arbel digital eta hormetarako 20 euskarri	24.865,50
FUNDACION CULTURAL PRIVADA AURTEN BAI	G48254767	4 arbel digital, 8 ordenagailu eramangarri, hormetarako 3 euskarri, 4 mikro, 10 entzungailu, 10 bozgoragailu, instalazioa eta 2 euskarri gurpildun	7.950,23
GERNIKA XXI S.L.	B20820585	3 arbel digital, 3 ordenagailu eramangarri eta 3 gurpildun euskarri	6.125,63
GOTZON GARITAONAINDIA Kultur E.	G48153258	2 arbel digital, 2 ordenagailu eramangarri eta instalazioa	3.224,96
JUAN MATEO ZABALA Euskaltea S.L.	B48145965	3 arbel digital eta 9 ordenagailu eramangarri.	7.437,91
LABAYRU FUNDAZIOA	R4800525J	2 arbel digital eta 2 gurpildun euskarri	2.516,80
LEGAZPI 6 EUSKALTEGIA SL	B20592044	2 arbel digital, hormetarako 2 euskarri, instalazioa eta lizentzia	2.555,67
ULIBARRI EUSKALTEGIA SCOOP	F48199673	15 arbel digital eta 42 ordenagailu eramangarri	31.852,58

Zerrendatutako materiala erakunde titularrek eskaeran deskribatutakoa izango da